

Gorde nazazu lurpean

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, halaber, informazioa berreskuratzeko baliabide mekaniko, fotokimiko, magnetiko, elektrooptiko edo fotokopiak erabiliz erregistratzea eta zabaltzea, jabeek alde z aurretik eta idatziz emandako baimenik gabe.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

1. argitalpena 2000ko azaroan
2. argitalpena 2001eko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Ramon Saizarbitoria

© EREIN. Donostia 2001

ISBN: 84-7568-933-7

L. G.: SS-50/2001

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@zarautz.com

www.zarautz.com/itxaropena

Gorde nazazu lurpean

Ramon Saizarbitoria

erein

Aurkibidea

– 7 –

Gudari zaharraren gerra galdua

– 65 –

Rossetti-ren obsesioa

– 229 –

Marcel Martinen aitatasun ukatua
(edo, “la femme, elle, sait”)

– 281 –

Bi bihotz, hilobi bat

– 401 –

Asaba zaharren baratza

GUDARI ZAHARRAREN
GERRA GALDUA



Iñaki Arriolari

Igentea kalera atera zenean, ez zekien “acta notarial de presencia” eta “acta notarial de referencia” ondo bereizten ote zituen. Jakaren patrika haztatu zuen, pentsioa bideratzeko paper guztiak gordeak zeramatzala egiaztatu nahian. Arkupean geratu zen, espaloi ertzean. Eguzkiak oso goian behar zuen, Gobernu Militarren hareharria, garai batean zuriz pintatua, urre kolorez tindaturik baitzegoen. Jakako patrika berriro haztatu ondoren, ezkerrean jo zuen, ibilera baldarrez, eskuinaldera nabarmen balantzaka, zurezko hankaren gainera. Biak zituen laburrak: zurezko hanka –makila bat, gomazko tope bat zuena– eta hura bezala zurezkoa zen makulua, eskailerak igotzea –eta bost pisu igo behar zituen etxera bidean– errazten ziona, jaisterakoan alderantziz izaten zen arren; batez beste, ordea, nahiago izaten zuen goerako nekeak gutxitzeko laburrera jo.

Murailatik gora abiatu zen, jarleku libre baten bila portura ematen zutenen artean. Bokarta garaia zen, portuan egonean egoteko entretenigarriena, ordu hartarako eginak egongo baziren ere deskarga eta salmenta gehienak. Lehendabiziko aulkira iritsi baino lehen gelditu behar izan zuen, Urgull gibleko eskola-umeei, bultzako ote zuten beldurrez, bidea uzteko. Barandaren kontra bermatu zen ilara amaigabea pasa zedin. Aldapan behera korrika eta saltoka zetozen neska-mutilek, bera-gana hurbiltzen ziren neurrian, mantsotu egiten zuten pausoa,

eta ondora iritsitakoan gerturatu egiten ziren, galtza zorrotik ageri zitzaion makilari so, eta beren artean hitz batzuk xuxurlatu ondoren, korrika jarraitzen zuten beherantz.

Irakaslea izan behar zuen emakume gazteak irribarre egin zion, barka ziezaien eskatuz ziur asko, eta, bi eskuak azpikoz gora astinduz, aurrera egiteko agindu zien haurrei.

Hainbat urteren buruan, ez zen oraindik ohitu zurezko hankak sortzen zuen ikusminarekin. Horregatik ez zuen, bere inguruan denek aholkatzen zioten bezala, hanka ortopediko on bat jartzen. Nahiago zuen bere gabezia nabarmen azaldu eta begirada askotan lotsagabeak jasan, gezurrezkoa zela zein keinurekin edo mugimendurekin atzemango zioten beldurrez ibiltzea baino.

Bere omega eskumuturrekoari begiratu zion, San Pedroko elizan ordua egiaztatu ondoren. Goizean esnatutakoan, lau eta erdie-tan geldirik aurkitu zituen orratzak, eta ez ziren mugitu giltza tope-raino eman zuenean. Berrogei urtean ez zitzaion halakorik gertatu, eta gauza nahitaez txarra iragartzen zuela iruditu zitzaion.

“Derrigorrez behar duzuna notario akta da” esan zion Udaletxeko neskak, eta zehaztu egin zuen gero: “Baina acta notarial de referencia” esaten diotena. Ez zitzaion argi geratu, ordea, berriro ere Elias Elortza eta Jose Egiarekin joan behar ote zuen notarioarengana.

Aulki batean eseri zen, eta eseri bezain laster paper multzoa atera zuen patrikatik. Banan-banan begiratu zien, beste behin, egin ahala aulki gainean pilatuz. Eskaera ezin argiago jartzen zuen zerrendaren orrian: “Acta notarial de referencia”. Baina zin egingo zuen beste hartan ez ziotela “de referencia” izan behar zuenik aipatu, eta notarioak ere ez zion esan besterik behar zuenik Jose Egia eta Elias Elortzarekin hankak ia airean salto egin zioneko gertaera hura kontatzeko eginbehar tontoa betetzera haren aurrean azaldu zenean; eginbehar tontoa, zeren, istorioa asmakizuna bazen, notarioaren aurrean kontatzeak ez baitzuen egia bihurtuko. Eta dudarik ez zuena zera zen, hamabost mila pezeta kendu zizkiotela aitortpena entzuteagatik, oso luze joan ez

zena bestalde, batez ere Elias Elortzari, xehetasunak eman nahi zituenean, “harira, harira” esaten baitzion notarioak; eta ziurtagiriarengatik, berriz, ez zekien beste zenbat pezeta eman behar izan zituen, eta martxa hartan, gerrako elbarri errepublikarraren pentsioa lortzeko, aise gastatuko zuen lehendik zuena, alegia, ofizial tornulari gisa zegokiona.

Halako batean, ordulariari begiratu ondoren, “zeuk kontatu” esan zion notarioak, lehor; eta beste biei, Jose Egiari eta Elias Elortzari, aitortza egiaztatzeko besterik ez zeudela han. Ez zen gizon atsegina notarioa. Jose Egiak eta Elias Elortzak besoak gurutzatu zituzten, garai batean behintzat, umeek, formal egoteko esaten zitzaizenean, gurutzatzen zituzten bezala. Alferreko gauza zirudien gizon hari esatea, kontua apirilaren hogeian gertatua jakinaraztea bazen, Elias Elortzari kontatzen uztea zela hoberena, egun hartan hura ere Martiartu batailoiarekin Intxortako magalean zegoelako, eta beti ikusten direlako gauzak hotzago, distantzia handiagoaz, norberari gertatu ez zaizkionean, metrailak hanka moztu eta ondorengo unekoak bereziki. Nolanahi ere, egia zen Luis Amianoren bidez zekitela han zeuden hirurek zekitena, urtero kontatzen baitzuen hark, jendaurrean, batailoikoak biltzen zirenez geroztik, Intxortakoa; eta istorioa Paco Bueno tabernan behin eta berriz kontatzearen poderioz, praktikaren bidez alegia, gero eta hobeto kontatzen zuela, egia zen hori ere. Hark bezain ongi, hainbeste xehetasunekin, inork ez behintzat. Baina Luis Amiano hila zen; bi egun lehenago, hain zuzen.

Azkenekoz Obanosen ikusi zuen, gaixotasuna –zehazki zer zen ez zekiena, baina biriketako zerbeit– gaiztotu zitzaionean, hauspo ahulekoa beti izan zen arren. Izan ere, alabak eraman zuen, han, giroa lehorragoa zenez, arnasa hobeto hartuko zuelako. Eta hamabost egun ziren alabaren semea, Amianoren biloba beraz, bila etorri zitzaieela, Elortza eta beraren bila, azken agurra –haiek izan ziren hitzak– egin nahi zielako.

Hitz egiteko gauza ez zen ia, baina hura izan zen, beti bezala, berritsuena. Berak, berriz, pentsioa eskatzeko asmoa zuela aitortu zion, horretarako Burgosera joan beharra izango zuen arren. Lasaiago geratu zen aitortpena egin ondoren, elkarrekin hitzemandakoa baitzeuden inoiz ez joateko, ezta indarrean ere, Burgosera. Hala esan zion: “Burgosera joan beharra izango diat”, eta Amianok irribarre egin zuen erantzun gisa.

Ondoren kontatu zion, bi lekuko behar zituenez, Egia eramatea erabaki zuela, Elortzaz aparte ez zegoelako beste inor batailoikorik eta, azken finean, sozialisten UHPkoarekin egon arren, gauzak gertatu ziren inguruetan baitzebilen hura ere: Zabaletan, Elgetatik pare bat kilometro hegoaldera. Nolanahi ere, esan zion ez zegoela kezkatuta, Egia entrenatzen ari zirelako batailoiko gorabehera guztiez jabe zedin, eta, gainera, kontakizuna hainbestetan entzun ziotenez Paco Bueno tabernan, buruz zekitela hirurek, baita xehetasunik txikienean ere; eta, bestalde, lekuko

batek aski beharko zuela, eta Elortza bai, batailoikoa zen, eta zintzo askoa gertatutakoaren berri egiazkoa emateko. Hori bai, inork ez zituen gauzak berak bezain ongi kontatuko, esan zion, eta Amianok irribarre egin zuen berriro. Eginahalak eginez eseri zen ohean, eta betiko istorioa kontatzen hasi zen, betiko hitzak erabiliz. Baina, hartan ari zela, alaba sartu zen gelan, eta, haur batekin ari bailitzan, errieta egin zion, gehiegi nekatzen ari zela eta eztula sortuko zitzaioela gero.

Horrela joan ziren gauzak, hitz berezirik gabe. Eskuak estutu bakarrik egin zituzten; berez, hatz puntak besterik ez, ez baitzuten esku osoa ematen asmatu, hiletetan eman ohi den doluminaren antza izango zuelako. Hori pentsatu bide zuten biek, Amianok eta berak.

Agur haren ondoren joatekotan zeudela, Amianok herrian egin zituen lagun batzuk joan zitzaizkion ikustera. Erreketekoak zirela esan zuen. “Honek hala dio –esan zuen haietako bat seinalatuz–, frontean harrapatu banindu, akabatu egingo ninduela”. Gizonak irribarre egin zuen; hortzik gabea, baina, hala eta guztiz ere, distiratsua zuen irribarra. Ismael Jaurrieta Tirapu zuen izena. Guztiek zituztela deitura euskaldunak jakinarazi zien Amianok, hain urrutikoak ziruditen arren, eta haietako bi beren aurrean omen zeuden frontean, Aszensio parean, apirilaren 20an.

Elias Elortzaren deitura jakin zutenean, bazela berekin ere Elortza izeneko bat esan zioten: Azkoitiko pilotaria. Elortzak herri osoak zuela Azkoitian deitura hori erantzun zien lehendabizi, baina gero, Amianori begiraturaz, lehengusua zuela aitortu behar izan zuen. “Ba, hauek diote han, Aszensio aurrean, harrapatu banindute, garbitu egingo nindutela” errepikatu zuen Amianok, eta gizon horzgabeak, “eso seguro” esan zuen, irribarretsu beti. Eta isilik geratu ziren, ez zutelako zeresan askorik, baina, batez ere, Amiano eztul zital batek hartu zuelako. Eta alaba sartu zen berriro. Atsedena behar zuela esan zien, eta semeak eramango zituela bueltan.

Duda egin zuen Amianori berriro eskua eman ala ez, baina azkenean ez zion eman. Beste egun batean ere itzuliko zirela

esatea bakarrik bururatu zitzaion. Atean zeudela, Amiano berriz eseri zen ohean, eta “ez ahaztu hi hinderaman autoaren atzetik korrika abiatu nintzela kontatzea” esan zion, eta ondoren, burua burko gainera erortzen utzi zuen.

Korridorera atera zirenean Amianoren alaba besarkatu zuen, gero berari ere harrigarria gertatu zitzaion berotasunaz. Eta emozioa ezkutatzeko, “kostako zitzaien horiei, bai, gu menderatzea, alemanek zerutik lagundu ez baliete” esan zuen.

Hori zioten beti, eta esatea kontsolagarria gertatzen zitzaien: abiazioaren zigorra gogorra izan zen; eta handia, dudarik gabe, etsaiek zeruan izan zuten abantaila. Baina trintxera asko abando-natzeko aitzakia ere izan zen, eta, azken finean, porrotaren ardu-raz desenkusatzan zituen.

Ez zuen sekula ere inor egin sentimendu horren partaide, eta damu zuen Amianorekin zenbait gauzatan, sakonera heldu gabe, azalean geratu izana. Ez zen erraza, hala ere, Amianori gauzak esaten asmatzea. Behin, ingeles baten liburuan irakurritako zerbeit kontatu zionean, huskeria bat –Bilbon atzerritar batek fusila kendu ziola norbaiti, kanoia gori-gori jartzeraino aritu zitzaielia hegazkin ehiztariei tiroka, eta ordu arte inori ez zitzaiola burutik pasatu hegazkinak goragotik ibiltzera behartzerik–, haserre bizian jarri zitzaion. Izan ere, ez zuen nahi harririk txikienak jautiz lauso zekion ikustea hain gogoko zuen iraganaren azalera gardena.

Notarioak ere ez zuen erakusten istorioaren xehetasunak jasotzeko interes berezirik, eta, bestalde, berak ere berehala konturatu ziren, notariotzan sartu bezain laster, hitz egiteko ordua iritsi zitzaienean, Amianoren gehigarriak, zalantzarik gabe kontakizunaren gauzarik interesgarriena zirenak, graziarik gabeko tentelkeria bihurtzen zirela beste inoren ahotan. Bestalde, Elias Elortzak –berak zioen bezala, “enbolia txiki batek” eman zionez gero– nahiko lan izaten zuen hitz egiteko, eta, berez notarioak ez ikusiarena egin zuen arren, txistu zipriztinen bat edo beste joan zitzaion haren mahuka gainera. Eta Egiari, berriz, erabat nabarmentzen zitzaion aurpegian ikaraturik zegoela, ez Martiartu

batailoian, baizik eta UHPen ibilia zela antzeman ziezaiokeelako; eta, hortaz, gauzak gertatu zirenean, gertatu ziren lekutik oso urruti ez, baina urruti zegoela: Zabaleta aldean.

Horregatik, poztu egin zen notarioak hitza berari eman ziola-ko. Eta, hasieran, funtsezkoena esan zuen: trintxeran zegoela, Elgetatik hirurehun bat metro ekialdera, Uberako ibar aldera so, Loxeta baserriko sorora zehazki; eta airean sentitu zuela bere burua, luze, luzeegi airean izateko, hegan bezala; eta azkenean lurrera jausi zela, ahoz gora; eta une hartan ez zuela gerritik behera deus ere sentitzen. Gaineratzekorik ezer asko ez, eta Luis Amianok kontatzen zituenetatik oso gutxi; izan ere, notarioak behin eta berriz kentzen baitzion hitza, harira joateko eskatuz. Eskatuz baino gehiago, aginduz, eta xehetasun hutsalik ez zuela behar esateko. Eta azkenean, gauzak behar bezala txukun eta zehatz azaltzeko gogoia ere kendu zion.

Labur hitz egin zuten arren, askoz laburragoa izan zen notario-ak ekitaldia amaitu eta, korrika irteteko premian balego bezala, arnasarik hartu gabe, hitz baten amaiera hurrengoaren hasierarekin lotuz irakurri ziena; egiazkoa izan arren, askoz laburragoa. Hori, kontuan hartu gabe esandakoa bere hitzez jasotzen zuela, eta ez, beharko zuen bezala –Udaletxekoari ongi ulertu bazion behintzat–, kontatzaileen hizkera erabiliz.

Izen-abizen eta gainerako ezaugarrien ondoren, “*expone* –jartzen zuen paperak– *que el día 20 de abril de 1937, hallándose en el campo de trincheras de Elgueta, Guipúzcoa, unos 300 metros al este de dicha localidad, formando parte del cuerpo de infantería del denominado batallón Martiartu, sufrió el impacto de metralla en su pierna derecha. Fue trasladado en primera instancia a un hospital de Durango en Vizcaya, y tras una primera cura, al Hospital de Basurto en Bilbao, donde le intervinieron. Como consecuencia del impacto sufrido perdió la pierna derecha, dos o tres centímetros por debajo de la rodilla.*

Los también presentes, naturales y vecinos de San Sebastián –Egia eta Elortzaren ezaugarri pertsonalak, Nortasun Agiri

Nazionalaren zenbakia eta abar–, *confirman la veracidad de lo relatado, en lo que respecta a la circunstancia en la que el declarante fue herido, por encontrarse junto a él, prácticamente, en el momento de recibir el impacto*”.

Akta hura laburregia ez ote zen aipatzen ausartu zenean, eskakizuna bideratzeko behar ziren alderdi garrantzitsu guztiak jasotzen zituela esan zuen notarioak, eta, jakina –salbuespen modura irribarre egiten zielarik–, ez zela posible berek nahiko zuten bezala, gertakizuna bere testuinguru zabalean, zehatz-mehatz kontatzea. Beraz, ez zuen akta ontzat ematea beste erremediorik izan, laburra izateaz gainera, okerren bat bazuen arren. Adibidez: Amiano, Elortza eta hirurak –Muxika, Elozegi eta lagun gehienak bezala– Sasetakoak ziren, baina Otxandioko erasoan, non hiru gizonetik bi galdu zituzten, nora ezean, Urkiolan azaldu ziren; eta handik ekialdera jo zuten, azkenean Martiartukoekin topo egin arte, eta haiekin gelditu ziren. Martiartukoak, gehienak ziren Txorierrikoak, eta “giputxak” esaten zieten, Amianori gustatzen ez zitzaiona, mespretxuzkoa egiten zitzaiolako belarrira.

Azken aldia izan zen notarioari kontakizun haiek osagarri alferrekoak zirela esateko aukera ematen ziotena. “Osagarri alferrekoa, Sasetata batailoian hiru gizonetik bat, Sasetata komandantea bera barne, galdu izana” pentsatu zuen berak. Izan ere, batetik, ez ziren gehiago hitz egiten ausartu, ezta gertakizuna arratsaldeko lau eta erdietan izan zela aipatzea ahanzi zitzaiola esateko ere; eta, bestetik, etsita, erabat galduta baitzuen gauzak gutxieneko zehaztasunaz, txukun, kontatzeko gogoia.

Kasualitatez, ordulariak markatzen zuen ordua zen, orratzek lau eta erdietan jarraitzen baitzuten geldirik, baina goizekoetan; esferan, jakina, gauza bera zen arren.

Beste behin astindu zuen eskua belarri parean, ea martxan jartzen entzuten ote zuen; alferrik ordea. Kointzidentziak ez zuela gauza onik adierazten iruditu zitzaion, eta eguzkiaren argira altxatu zuen burua, pentsamendu ilunak aldendu nahian.

Udazkeneko egun bat zen, hego haizeak zeruko errautsak garbitu, eta Donostia urre kolore beteaz janzten den horietakoa. Uraren joan-etorriak puntetan adierazten zuenez, itsaso sakona zegoen; baina, besterik gabe, kolorean igar zitzakeen itxasoaren egoera, marea, haizearen norabidea eta eguraldia ere. Ñabardurarik txikiena ere bazekien irakurtzen itsaso haren azalean, eta ezagutzen zuen bakarra izan arren, egiaz, munduko itsaso guztiak ezagutzea bezala zen, eguraldiaren arabera zazpi itsasoen aurpegiak zituelako.

Behin, badia bare eta urdin zegoela –eskuineko zangoa gihartsua eta malgua zuenean oraindik, oinak lonazko zapata zurietan jantzita–, Hernani kalean Kintana eta Zaragueta eskola lagunekin topo egin zuen egunaz oroitu zen. Donostia hartu zuten egunaz. Erreketeak sartzeaz zeudela esan zioten, eta portura zihoazela Bizkaira eramango zituen ontziren baten bila. Bi aldiz pentsatu gabe, haiekin joan zen, amaz kezkatu zegoen arren.

Zorionez, portura iristekotan zirela, Aizpurua ikusi zuen Nauticotik ateratzen. Haren ondoan bizi zen orduan, atari berean, eta eskolara ere elkarrekin joaten ziren. Baina hor bukatzen zen kidetasun guztia, Aizpurua, falangista beroa izan gabe, haien zalea zelako; aita, berriz, CEDAkoa zuen, baina, halere, ez ziren gaizki konpontzen elkarrekin.

Ea nora zihoan galdetu zion Aizpuruak. Jaka urdinez zegoen jantzita, alkandoraren lepo zuria haren gaintetik aterata. Zaraguetak erantzun zion beraren ordeaz. Zaragueta eta Kintana, biak, Durangon hilko zituzten. “Nos vamos a la guerra”, hitz horiekin erantzun zion Zaraguetak, bera bizkarretik helduta porturantz bultzatzen zuela. Aurrera egin zuten, eta, burua bueltatu zuenean, Nauticoko eskaileretan zegoen Aizpurua oraindik, bi eskuak, hatz lodiak izan ezik, jakaren patrikan sartuta; oso berea zuen postura hura, eta urteak aurrera joanda ere, zutik zegoenean, ohitura berarekin jarraituko zuen: hatz lodiak kanpoan utzita, eskuak jakaren sakeletan, sabel lodia aurrera, buru handia atzera, harro. “Esan amari ez naizela joango bazkaltzera” oihu egin zion. Eta Aizpuruak baietz egin zion buruarekin.

Ez omen zen gizon gaiztoa Aizpurua; jendeak esaten zuenez, mesede asko egindakoa zen; baina berak gerra amaitu eta urte askoan ez zuen agurtu, bere ama hil zenean doluminak ematera etxean azaldu zitzaion arte. Gerora ere, ez zuten askorik hitz egi-ten: besterik gabe, ohiturazko hitzak kalean elkarrekin gurutzatzean. Batek baino gehiagok esaten zion, Información y Turismotik erretiratuta zegoen arren, asko lagundu ziezaiokeela hark militarren aurrean, gerrako pentsioa jasotzeko; baina berak ez zion sekula mesederik eskatu, ezta eskatuko ere.

Kiriko zuen izena ontziak. Lehendabiziko kaian zegoen, udan belaontziak eta neguan kargakoak egoten ziren tokian, kalerako jantzitako mutil gazteez gainezka kubiarta. Amiano ere han zen. “Aupa gazte” esan zuen Amianok, frontoian animatzeko esan ohi zuen bezala, eta berak, hark eskaintzen zion ontziak arrimatzeko kakoari heldu gabe, salto egin zuen, aurretik eskuineko hanka, zazpi hilabetera Elgetan galduko zuen hura, eta zeinarengatik pentsioa emango zioten, 40 mila pezetakoa, paper guztiak biltzea lortzen bazuen behintzat, eta azkenik, noski, Burgosen Auzitegi Militarrak onartzen bazizkion.

Behar zituen dokumentu guztien zerrenda atera zuen berriz. Argi zegoen: “Acta notarial de referencia”, “Certificado de oficialidad del Archivo Militar de Valladolid”, “Examen médico en el Hospital Militar de la V Región en Burgos”.

Muinoa erakutsi beharko zien. Bendaz lotuta zeraman, lehendabiziko hilabeteetan ohi zuen bezala. Orduan, azala egin gabe zuelako, eta azken denboran, azukrearen gorabeherak zirela medio, gaiztotu egiten zitzaiolako. Gorroto zuen, umiliatu egiten zuelako, une hori, benetan amaigabea egiten zitzaiona, zeinean, aulkian eserita, benda kentzen hasten zen, medikua bere ondoan zutik, eskuak bizkarraldean zituela gehienetan, arretaz so, muinoi itsusia noiz azalduko zain zeukan bitartean. Beti zetorkion gogorra egun hura, gerra amaitu eta askoz geroago –hamar urte bai,

berrogeita hamarrean edo–, berak jada hogeita hamalau edo hogeita hamabost urte inguru zituela, gehiago ezinean, eta baita besterik ezinean ere, Etxe Maitera inguratu zen eguna, jakin beharra baitzuen emakume batek onar ote zezakeen gabezia hura.

Ordurako, normalean ez zuen bendarik erabiltzen, baina ego-kiago iruditu zitzaion egun hartan muinoa lotzea. Lehendabizi pattarra edan zuen tabernan; bakarrik zegoela bi kopa, eta gero beste hiruzpalau neskarekin. Mozkorturik zegoen beraz, eskuineko hanka luze, ohe ertzean eseri zenean. Tabernan, neskari esan zion lehendabiziko gauza egurrezko hanka zuela izan zen. Ez zuen zerrendarik egina hari esatekoekin, baina alde z aurretik zeraman pentsatuta pausoz pauso zer egin.

Galtzen eskuineko berna, bi tolesetan, hamar bat zentimetro bildu zuen, bere gabezia erabat argi gera zedin. Luzea egin zitzaion emakumeren bat inguratu zain emandako denbora, bata bestearen ondoren bi kopa eskatu eta justu tragoz edateko eman zuena baino gehiago izan ez zen arren. Eta, noski, egurrezko hankari egotzi zion nesken ustezko arbuioa.

Lau emakume besterik ez zeuden, ordea, areto osoan; hartuta, gainera, laurak, baina haietako bat, lepotik heltzen zuen tipoaz libratzea lortu bezain pronto, hamar bat minuturen buruan gerturatu zitzaion. “Gerran galdu nuen” izan zen esan zion lehendabiziko esaldia, eta zentimetro batzuk gehiago jaso zuen galtza zorroa, muinoiaren pareraino ia, neskak argi eduki zezan norekin egin behar zuen tratua.

Normalean lasaiago egon ohi zen, ezezagunekin harremanak zituen parada urrietan hitz beti berdinak izaten ziren haien bidez –“gerran galdu nuen”–, bere gabeziaren arrazoia argitu ondoren. Orduan ere hala izan zen: “Gerran galdu nuen” esan, eta lasaitu egin zen; baina ez erabat, ordea. Gutxienez beste hiru kopa edan zituen barran, eta gehiago ere edango zuen, neskak berak, hasieran edaria ateratzera animatu bazuen ere, aski zuela eta hobe izango zutela gora igotzea esan ez balio.

Ohe ertzean eseri zenean, damutu egin zitzaion muinoia bendatu izana. Biluzterakoan, ezer baino lehen, galtza zorroa goratuz egurrezko hanka kentzea izaten zuen egitekoa. Justu belaun azpitik zuen galdua, alegia, artikulazioa osorik salbatu zioten; baina, hain zuzen ere zurezkoa jarrita zuenean, belauna erabat tolestea eragozten zion loturak. Beraz, ohe ertzean eserita, hanka herrenaren gainean makurtu zen; galtza altxatu, uhala askatu, eta benda kentzeari ekin zion.

Bururik altxatu gabe ere ikus zezakeen neska bere aurrean, egiten ari zenaz erabat interesaturik begira zuela. Bi buelta kendu zituen, kentzen zuen zatia esku barruan bilduz bide batez, muinoia azalduko zen unea atzeratzeko helburuaz, bitarte horretan neska biluzten hasi, edo bere ondoan eser zedin behintzat, han aurrean zutik egon gabe, eskuak gorputz atzean, ateko kisketari helduta –hura zabaldu eta ihes egiteko prest bezala–, zer izugarrikeria azalduko ote zen jakin-minez zain.

Luzaroan egon zen ezkerreko eskuaz muinoi oraindik estaliari airean eutsiz, eskuinekoan kendutako benda zatia, aurrera egiteko gai ez zela. Neskak ere ez zuen mugimendurik egin, berak egiten zituenak edo egiten ez zituenak zaintzen. Azkenean, egoera hori luzatu zenean, alegia, bata bestearen aurrean geldirik gutxienez minutu luze bat egon ondoren, neska izan zen esku bat gorputz atzetik atera eta bekokira eramateko mugitu zuena.

Berak burua altxatu zuen orduan. Neskak bekokiaren kontra zuen jarrita esku barrena. “Nola esan duzu galdu zenuela?” galdetu zion. “Gerran galdu nuen” erantzun zuen. Xarmanta irudituz itzaion neska, iharra sobera. Bular oparoagoak eskertuko zituela pasatu zitzaion burutik, benetan pentsatzeko denborarik gabe. Batzuetan bi eta hiru gauza batera pasatzen zitzaizkion burutik; benetan pentsatu gabe, burutik pasatu besterik ez, baina gauza asko batera, eta buruko mina eragiten zion horrek.

Izterraren indar hutsez mantendu zuen muinoia airean, kentzen hasitako benda berriro lotzen zuen bitartean. Pentsatu gabe egin zuen. Gero, galtzen berna jaitsi eta zutitu egin zen makuluaren

laguntzarik gabe. Ez zion neskari atetik aldentzeko agindurik eman behar izan. Bere kabuz aldendu zen. Ez zen ergela; baze-kien, nonbait, bere burutik elektrizitatearen indarraren lastertasunaz pasatzen ziren ideiak irakurtzen, eta, horregatik, jakin behar zuen belarrondoko bat ere eman ziezaiokeela.

Eskua patrikan sartu, eta ohe gainera bota zuen prest zeraman dirua. Orduan, ea ez ote zuen nahi zerbait egin ziezaion galdetu zion neskak. Horrela: “Ez al zenuke nahi zerbait egin diezazudan?” Ez zela agian hain neska argia pentsatuz, ezetz erantzun zion.

Geroztik ez zuen inoren aurrean zurezko hanka kendu; hariak eta, urte asko pasata, 50 urte inguru, anbulatorioan azaldu zen arte azukrearen eraginaz sendatzen ez zitzaion zauria erakustera. Eta sendagilea atearen kontra etzanda geratu zen; hura ere kisketari helduta beharbada, arreta handiz so zuela, berak benda kentzen zuen bitartean.

Burgosen ere muinoa erakutsi beharko zion sendagile militarri. Jose Egiak esaten zion militarrek ez zirela lehengoak, eta oso tratu ona ematen zietela berak bezala pentsioa lortzeko Auzitegi Mediku-Militarraren aurrera aurkeztu behar zutenei. Norbaitek esanda omen zekien aurkeztu zituen paperak eta ziurtagiriak gainetik begiratu besterik ez zizkiola egin mediku militarrek Bilboko Gerra Eskolako kapitaina izandako gudari bati; ez zuela aztertu alegia, eta “mi capitán” esanez tratatu zuela. Baina, hala ere, Burgosera joan behar.

Amianok ez zion gogoratu nahi izan Burgosera sekula ez joateko hitza zutela emana, baina triste ikusi zuen aitortutakoan. Egia esan, ez zeuden formalki hitzemandak, baina askotan esana zioten elkarri, eta berak bezala baita Egia, Elortza eta beste askok ere, munduko urre guztiaren truke ere ez zirela hara hurbilduko, pasatu zituzten miseria eta neke ikaragarriak gogoan: sasi-epaiketa lehendabizi, zeinaren ondorioz gehienak heriotzara kondenatu zituzten; “entresakak”, alegia, gauero zeldetan azaldu, eta norbait aukeratzea, hilerrira eramane eta harresiaren kontra fusilatzeke; Trabajadoresetako lau urteak gero: hotza, nekea eta gosea

Gaztelako eremuan. Han zeudela, esaten zioten elkarri, bizirik ateratzen baziren, munduko urre guztiarengatik ere ez zirela itzuliko. Geroztik, gazte euskaldun asko zen pasea Burgoseko Auzitegi Militarretik, eta kartzelatik; eta fusilatu ere egin zuten Otaegi hura. Carcastrillon, Burgosen.

Kartera atera zuen. Beti zeraman karteran Burgoseko kartzelan heriotzara kondenaturiko euskaldunen argazkia, patioko angelu batean ehun gizon azaltzen zirena –ez gehiago, ez gutxiago–, irribarretsu, kamerari so gehienak, igande goizean mezatarako jantzita baleude bezala. Hantxe zeuden Luis Amiano eta Elias Elortza ere, eta Muxika begibakarra. Askok ziren hilak. Behin, Amianok kontuak atera nahi izan zituen, zenbat ote ziren; baina ezin izan zuen, bistatik galduak zituztelako asko, gehienak. Hala ere, beren ingurukoetatik erdia baino gehiago hilak ziren.

Kaioen zaratak burua altxarazi zion. Ontzi baten popari jarraitzen zioten garrasika, kargaren hondakinen demandan. Gaztetako bista ona mantentzen zuen urrutirako. Aurrean, barandaren kontra bermatuta zegoenaren egunkarian, erabat argi irakur zitzakeen tituluak: “Suárez: *Hay que restañar las heridas de la guerra*” irakurri zuen, hitzen edukian arretarik jarri gabe, bista neurtzearren, eta jabeak bere bistatik kendu zuen egunkaria, ezkutuko irakurleak atzemateko izan ohi den senak ohartarazita.

So geratu zitzaion. Gaztea zen; “langabea”, pentsatu zuen, lan orduetan zeudenez. Zigarro bat atera, ezpainen jarri, eta hatz batekin punta seinalatu zion. “Surik gabe geratu naiz” esan zuen gero. Urteak ziren erretzen ez zuela. Hogei bai. Baina, hala ere, pospoloak eramateko ohitura zuen, hark bezala norbaitek eskatuz gero, eskaintzeko. Baina, kasualitatea, egun hartan ez zerman pospolorik.

Hori guztia esan zion, besterik gabe ezezkoa bota orde, eta berehala damutu zen, behar baino adierazpen gehiago eta luzeagoak egiteko hartzen ari zen ohituraz jabetuta. Azken finean, ezin eman ziezaiokeen surik; hori zen kontua, eta hori, gazteari inporta zitzaiona.

Gauza bera pentsatu bide zuen gazteak ere. Egunkaria besazpian jarri –“Suárez: *Hay que restañar las heridas de la guerra*” irakurri zuen berriro, behetik gora, bururik apenas alboratu gabe–;

eskua patrikan sartu eta pizgailua atera zuen, belarri parean astindu ondoren pizteko bi edo hiru saio alferrikako egin, eta lurrera botatzeko. Murailan behera egin zuen gero.

Pizgailua bere oinetan geratu zen. Plastikozkoa zen, zuria, eta ikurrinaz apaindua. Ez zen ohitzen ikurrina gauza hutsal eta arrunta bailitzan erabilia ikustera. Handik ikus zitzakeenak kontatu zituen: bost, uretan baporeek zituztenak kontuan hartu gabe.

Artzain Onaren katedralean Elosegik jarri zuena etorri zitzaion gogora. Dorrearen puntan ipini, eta eskuko eskaileraren azken metroetako mailak moztu zituzten, bonba itxura zuen tramankulu bat eransteaz gainera, ken ez zezaten. Loiolako soldaduek behar izan ziren kanpotik erretiratzeko. Baina luze haizatu zen, harro, donostiar guztiek mires zezaten kentzea lortu baino lehen. Elosegi, Joseba, ez zuten harrapatu, baina haren ordeztu anaia hartu zuten preso; oraindik Trabajadoresetatik atera berria zela, bost urte pasatu zituen barruan, Burgosen. Berrogeiko hamarkadaren hasieran izan zen hura; ez zekien ziur zein urtetan.

Joseba Elosegi Sasetakoa zen. Eta Muxika begibakarra ere, tenientea, hangoa zen. Muxikaren semeak, soldadutzan zegoela, Burgoseko katedraleko dorrean jarri zuen ikurrina, eta ez zuten harrapatu, jaisterakoan hanka hautsi zuen arren. Hori ere ez zekien noiz izan zen, baina 62aren inguruan behar zuen.

Makuluaren puntaz gerturatu, makurtu, eta lurretik jaso zuen pizgailu ikurrinduna. Pizteko saioa egin, eta piztu egin zen; lehendabizikoan. Goiko metala berotu zitzaion arte eduki zuen eskuan piztuta, eta patrikan gorde zuen gero.

Amianori emandako hitza bete, eta ez zela Burgosera militarrei muinoia erakustera joango etorri zitzaion burura; nolabait esateko, bere borondatetik at inposatu zitzaion ideia izan zen hura: ez zion beste inori, eta are gutxiago militar bati, mutilazio madarikatua ikusten utziko.

Aulkitik altxatu eta murailan behera egin zuen, Igentearantz. Taxi bat hartuko zuen. Boulevard buruan ilara zegoen, Barandiaran tabernaren aurrean. Bizpahiru taxilari zeuden telefono zutoinaren

inguruan solasean, eta, haiengana iristeko oraindik metro batzuk falta zituela, galdetu zion, ozen eta guztiei, ea zenbat kobratuko zioten Aszensora eramateagatik.

Harriduraz begiratu zioten, berari lehendabizi, eta elkarri gero. “Nongo San Aszensora?” galdetu zion batek, eta “Getaria izango da” esan zuen besteak, eta hirugarren batek, aldi berean ia, “Getariakoa San Pelaio da; San Asensio Errioxan dago”.

Haien ondoan zegoen jada, helmuga zehatza azaldu izanaz damuturik, Aszensio, beste leku askotan ere bai akaso, baina Elgetan zegoela argitu zienean. Gipuzkoako herririk garaiena. Ea zenbat kobratuko zioten Elgetaraino eramateagatik. “Oraindik ere gai naiz Elgetatik Aszensora oinez joateko” esan zuen, ahopean ia.

Tratua egin ondoren, ilara buruko taxian sartu zen; ohi zuen bezala, bizkarrez, txoferrak eskaini zion laguntzarik onartu gabe. Igenteatik Hernani kalea hartu zuten. Abenidarekin egiten duen kantoian ia, letoizko plaka ikusi zuen Lasaren bebarruan: “J. J. Lasa, Psiquiatra”.

Garai hartan ez zen psikiatra, ezta medikua ere; ikaslea zen oraindik, ez zekien zein urtetakoa. “Aurreratua” pentsatu zuen, eta batailoiko kamilleroa. Hura izan zen, erabaki egokiak garaiz hartuz, bizia salbatu ziona. Lehendabizi, berna belaunetik banatu zion, biak batzen zituzten zain bakanak ebakiz, era horretan, torniketeta egokiago eginez, odoljariora saihestu ahal izateko; eta muinoa bendaz lotu zion gero. Egitera zihoan gauza bakoitza ozen esaten zuen, buruz zekien ikasgai baten urratsak egiten ari bailitzan. Gerora esan zion urduritasuna menderatzeagatik egin zuela hura, eta ez zuelako uste bera egoera hartan konturatuko zenik.

Autoan ere hark lagundu zion, eskertzekoa izan zena; izan ere, txoferra, bera baino ikaratuago zegoelako beharbada, arnasa hartzeko ere ez baitzen isiltzen. Jabetuta ez egotera, haren ahoz jakingo zuen berna moztu ziotela, ziur asko adore emateko Txurrukari goragotik kendu ziotela esaten baitzion, eta hark irinez betetako barrika batean sartu zuela muinoa, odolari eustearren, San Juan

Crisóstomo ontzian frantsesen kontrako gudua, Trafalgarrekoa, irabazi arte zuzentzen jarraitu ahal izateko.

Egoteko isilik esan zion Lasak, borondate onenarekin, oinaze-an entretenigarri gertatzeko asmoz, etengabe hitz egiten zuen ezjakin hari: San Juan Nepomuceno zela ontziaren izena, ez Crisóstomo, eta Trafalgarren ingelesek irabazi zutela espainolen eta frantsesen kontra.

Berak ere bazekien hori, aitak, Txurruka bezala mutrikuarra izaki, mila aldiz kontatu ziolako, gerran zango bat galduko zuela pentsaezina zen garaian. Eta, egia esan, huraxe zen aitak azaldu-riko jakinduria aztarna bakarra. Edonola ere, ez zion argitu zer egiten zuen mutrikuar batek gerra hartan, espainolekin, frantse-sak lagun zituela eta ingelesten kontra.

Abenidatik ezkerrera, Easo utzi eta Zubieta hartu zuten. Kaleak lehenagoko izenak ari ziren berreskuratzen. Horri buruz taxilariak esan zuen berentzat nahasmena zela hainbeste aldaketa; hobe litzatekeela, New Yorken egiten omen zuten bezala, kaleak zenbaki bidez izendatzea.

Easo, Easo izan zen beti; Victor Pradera Francoren garaian, eta ez zuten zertan aldaturik. Gauzak bere lekuan jartzea zen oraingoa. Beste une batean haserre bizian erantzungo zion txoferraren adierazpenari, eta, bide batez, jakinaraziko zion Easo kalean hasi zela berarentzat gerra, asturiarrak eta eibartarrak Amarako gelto-kitik sartzen ikusi zituenean.

Garai hartan erabaki gabe zuten Alderdikoek gerran sartu ala ez. Horixe zen, Paco Buenon biltzen zirenean, UGTkoek sarritan leporatzen zieten: denbora gehiegi eman zutela non kokatu pentsatzen, faxisten aurka jartzea erabaki zuten arte.

Modu askotan saiatzen ziren salaketa horretatik libratzen, baina Amianok gehienetan esaten zien gorrien eskutik joateak ere ez ziela halako gogo bizirik pizten, haien atzetik ibili behar zutelako beti, elizak eta komentuak erre ez zitzaaten zaindu ezinik; eta besteek, berriz, ez zirela apaizen gonapetik ateratzen arrapostu. “Kalonje bat lehendakariaren aholkulari” esan, eta barre algaraz hasten ziren.

Berak, bakarrik zeudenean noski, arrazoi ematen zien gauza batzuetan, Amiano haserretu egiten zitzaion arren. Onartzen zuen

izan zela Alderdian zalantza egin zuenik, baina Errepublikaren alde gerran sartu izanari esker, hots, gerra galduz, irabazi egin zuten; duintasuna irabazi zuten, berentzat eta etorriko ziren belaunaldientzat. Hala pentsatzen zuen.

Behin, hitzen inertzia hutsagatik, “inorekin sartu ez bagina, hobe” etorri zitzaion burura. Hori ere askotan gertatzen zitzaion, pentsamendu bat besterik gabe etortzen zitzaiola gogora, hitz batek beste bati dei egiten ziolako, bertsolariei gertatzen zitzaien antzera.

Horregatik, beste askotan bezala “gerra, bai, baina duintasuna ez genuen galdu” eta antzekoak esaten ari ziren batean, “sartu ez bagina, hobe” bururatu zitzaion berari. Ez zuen esan noski, eta isiltasun horretaz ere damu zuen, gustatuko baitzitzaion jakitea zer erantzungo ote zuen Amianok halakorik adierazi balio. Zehatzago esateko, interesatzen zitzaiona Amianok jarriko lukeen aurpegia ikustea izango zen, besterik gabe; nahiz izanez gero, berak ere erraz arbuia baitzezakeen ideia hura.

Amianok epelegitza hartu izan zuen beti; usteltzat ez, epeltzat. Horixe uste zuen, horren inguruko adierazpen argirik sekula egin ez zion arren. Hala eta guztiz ere, “sartu ez bagina, hobe” hura ez zuen egiatzki bere pentsamoldearen adierazpentzat onartzen, hasieran, nolabait esateko, adimenaren mugimendu erreflexu baten antzekoa izan baitzen; eta buruan bueltaka bazerabilen, ez zen gerran ibili izana damu zuelako –bertan galdu zuen guztia kontuan harturik, eta bizitzan porrot egin izana gerrari egotz ziezaiokeen neurrian, ulertzekoa izan zitekeen arren–, baizik eta ideia hura –“sartu ez bagina, hobe”–, bere buruan sortua izanik ere, arrotza egiten zitzaiolako.

Baina leloa –“sartu ez bagina, hobe”– adimenean finkatzen zitzaion neurrian, hainbeste denboran halakorik lehenago bururatu ez izana gertatzen zitzaion harrigarria. Ezin jakin zuen ideiarekin funtsarekin ados ote zegoen –ados egotea jasandako sufrimenduak alferrekoak izan zirela onestea litzatekeen neurrian, normala ideia hura arbuizatzea zen–; baina ez zuen gogoz kontrakoa, antza, buruan bueltaka ibiltzea.

Hura guztia norbaiti adierazteko gogo sentitu zuen, bere buruan argiago ikusteko batez ere; aditzera ematen ez diren arte ideia batzuk ez baitira zehatz taxutzen, eta, era berean, buru barruan itzulika interesgarriak diruditen pentsakizunek, sarritan, hitz bihurtu bezain pronto erakutsi ohi dutelako beren zentzugabekeriaren egia.

Taxilariak gogoetaren haria eten zion, bide zaharretik ala autobidez joango ziren galdetu zuenean. Bide laburrenetik joateko erantzun zion. “Orduan, autobidetik hobeto” esan zuen taxilariak, eta ordubetean iritsiko zirela.

Denboraren aipamenak lau eta erdietan gelditua zen ordularira begiratzera eraman zuen berriz ere. Eskua astindu zuen behin gehiago, mekanismoa suspertuko ote zitzaion, eta belarrira eraman zuen gero; baina orratzak ez ziren mugitu. Hura ere, ordulariaren hutsegitea alegia, ez zitzaiola jada inporta egiaztatu zuen; arriduraz nolabait, beste egoera batean –Aszensora joatea erabaki zuen arte– oso kezkatzekoa irudituko baitzitzaion, bere garaian ordularirik oberenetakoa baitzen, eta asko maite zuelako. Damu izan zuen, pentsamendu horren ondoren, txoferrari biderik lasterrena hartzeko esan izana. Ez zuen presarik. Arnasa sakon hartu zuen, txoferrak bi hatz zabaldurik zeraman leihoari aurpegia eskainiz, eta notarioaren aurrean pasatutako estutasuna ekarri zuen gogora, une hartako lasaitasunaz gehiago gozatzeko.

Askotan gertatzen zitzaion zerbait kontatu beharra zuenean nondik hasi ezin asmatzea. Beti, egia esan; eta gehiago, entzulea aspertu nahi ez zuelako-edo, gauzak ahalik eta lasterren kontatzera behartuta sentitzen zenean. Lasaitasuna behar zen zerbait kontatzeko; edonondik hasteko libertatea gero, kontakizuna puntu batean utzi, eta, behar izanez gero, beste bati ekiteko.

Orduan, notarioaren aurrean, auskalo zergatik, gerraren amaieraz hitz egiteko beharra-edo sentitu zuen; beharra, behar-bada, gehiegizko hitza zen arren. Desira, hortik, amaieratik hastekoa. Sozialistek hori ere leporatzen baitzieten Paco Buenon, Santoñakoa, armak italiarrei entregatzea, desertzioa izan zela, eta Gamir jeneralak bat baino gehiago fusilatu beharko zukeela.

Horri erantzuteko ere argudio asko zituzten, jakina; Alderdiak gerran sartzeko izan zituen zalantzei buruzkoak baino gehiago, beharbada: batez ere, gerra galduta zegoela jada, eta alferrik zela, Negrinek nahi zuen bezala, sufrimendu ikaragarri hartan jarraitzea.

Berak ere iritzi hori azaldu izan ohi zuen gai hartaz hitz egitean, baina ez barren-barrenean nahigabe ilun bat sentitu gabe, bai baitzekien besteak konbentzituko zituela beharbada, baina ez bere burua; erabat ez, behintzat. Eta behin Jose Egiaren semeak, Paco Buenora inguratu zitzaizen batean, esan zienean okerrena ez zela errenditzea izan, baizik eta isilpean, Errepublikari ohartarazi gabe, errenditu izana, berak arrazoi eman zion.

Mutil zintzoa eta jakituna zen Egiaren semea, Filosofian lizenziatua. Ondoren, esan zien bazela dokumentu bat 37ko abuztuaren 20koa, zeinean nazionalistek italiarrei eskaintzen zieten: “*Una rendición legitimada a ojos de terceros, bajo la forma de una victoria militar*”. Ez zuten errenditu nahi izan, baizik eta italiarrei irabazten utzi, errepublikarren aurrean beren burua zuritzeko.

Orduan berak bihotz hartu –bihotz hartu beharra zegoen, egiaz, Amianoren aurrean hitz egiteko–, eta azkeneraino eutsi behar zioketela esan zuen, eta Egiak ere baietz, edo bestela, leialtasunez jokatzuz, Errepublikako Gobernuari errenditzera zihoazela jakinarazi behintzat. Eta Elortza, gehienetan bezala, isilik geratu zen.

Eta Amianok, jarri ohi zen bezala, bere onetik aterata begiak sutan, “ea zer zekien mukizu hark gerrari buruz, bezperan jaioa baitzen” bota zion Egia gazteari; eta betikoa erantsi zuen gero, alegia, italiarrekin tratuan hasi baino lehen Errepublikak bizkarra eman ziela gudariei, eta asperturik zeudela ordurako iristen ez ziren hegazkinen eta armen zain.

Denak isildu ziren, bai baitzekiten solas hartan aurrera jarraituz gero bizpahiru egunerako muturtuta ibiltzea baino ez zutela lortuko. Gainera, horrelakoetan Paco Bueno etortzen zitzaizen laguntzera; izan ere, giroa ekaiztsu ikusten zuenean, txanda bat ardo bere kontura atera, eta Galarretako partidaz galdetzen baitzien. Dena den, Amianok izan ohi zuen beti azken hitza. Beste

gai bati atxiki baino lehen, besterik ezean isilka, berea bota behar izaten baitzuen, eta, ordukoan, batzuk besteak baino gehiago, baina espainol guztiak zirela etsaiak esan zuen, eta italiarrak, berriz, hitzik gabeko koldar hutsak. Hain zituen gorroto italiarrak, non gerra ostean ez baitzuen inoiz gehiago makarroi-rik jan, haien asmakizuna zirelako. “Makarroni italiari” esan ohi zuen, platera bi eskuekin estaliz, eskaintzen bazitzaizkion. Aitzitik, alemanak miretsi egiten zituen, prestuak eta, baita gerran ere, langileak zirelako.

Edonola ere, Santoñako gertaldiaren inguruan gauza bat zegoen guztientzat argi, eta hori kontatu nahiko zion notarioari: beren burua entregatu zuten gudarien aurrean jartzeko Ajuriagerra Miarritzetik Santoñara abionetaz itzuli izanak –eta hori eginez bere heriotza kondena sinatu zuen–, hots, burukide bakar baten portaerak, duintasuna eman zien gainerako guztiei. Nolako garrantzia beraz, burukide baten une bateko erabakiak. Horregatik, edonork ez zuen balio burukide izateko. Hori zen, hasteko, notarioari esango ziokeena: berak zehazten ez zekien arazoiren batengatik, bazirela bizitzan pertsona batek bere patuari jarraitzen jakin behar zuen uneak. Baina atetik sartu bezain pronto ia, justu hirurei eskua eman ondoren, oraindik mahai buruan esertzeko zegoela, bota zuen lehendabizikoz gero-
ra gutxienez hiru edo lau aldiz errepikatuko zuen “muga zaitezte gertakizunetara” bere ustez desegoki hura.